

ARRAZAKERIAREN AURKAKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau sinatzen dugun gizarte erakundeek eta Nafarroako Gobernuak, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren bitartez, adierazi nahi dugu, martxoaren 21eko arraza diskriminazioaren aurkako egunaren harira, lanean ari garela arrazakeria eta xenofobia guztiz baztertzen duen komunitate bat lortzeko, hori baita gure nahia.

Orain arte izan dugun lan esperientziaren ondorioz, baieztatu dezakegu Nafarroako gizartearen gehiengoa jarrera arrazista eta xenofoboaren kontra dagoela, baita pertsonak beren jatorriaren, kulturaren edo etniaren arabera diskriminatzearen kontra ere. Hala ere, kezka handiz ikusten dugu nola ari den zabaltzen gorrotoaren diskurtsoa ordezkari politikoaren artean eta komunikabideetan. Zoritxarrez, ikusten dugu gure artean hedatzen ari dela arrazalaturiko pertsonetara edota atzerrikariek heldu diren pertsonetara, eta horren atzean dauden interesak ez direla batera zintzoak.

Horren aurrean, uste dugu hezkuntzak eta informazioak indar handia dutela, sentsibilizatzeko eta bizikidetzak sustatzeko tresnak baitira. Uste dugu bizikidetzak izateko elkar ezagutu behar dugula, eta bizikidetzak posible eta are beharrezkoak dela etorkizun oparoa eraikitzeko, arlo guztietan garatuko dena.

Uste dugu beharrezkoak dela sentsibilizatzeko eta informazioa emateko, horrela lortu ahal izateko gizarte inklusiboago bat, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako konpromisoa duena. Tolerantziaren printzipio etiko unibertsalean oinarrituriko bizikidetzak defendatzen dugu, zeinaren ezaugarri baitira munduko aniztasuna errespetatzea, onartzea eta balioestea. Tolerantziak esan nahi du ororen gainetik jartzea pertsonaren balioa, duintasuna eta eskubideak; eta horrek dakar besteen iritziak, sinesmenak edo kultura aintzat hartzea, horiekin ados egon nahiz ez.

Arrazakeria eta xenofobia oro da gaitzestekoa, zeinahi dela ere haren jatorria (instituzioak, ordezkari politikoak, hedabideak, edozein motatako gizarte eragileak), eta nornahi dela ere haren biktimak (hemen jaiotakoak nahiz beste nonbaiten jaiotakoak). Uste dugu giza eskubideen errespetua beste ezeren gainetik jarri behar dela, eta horren barnean dago edonork bakean, duintasunez eta nahi duen tokian bizitzeko duen eskubidea errespetatzea eta babestea.

Uste sendoa dugu bizikidetzak eta pluraltasunak berezko balioa dutela, kulturen arteko bizikidetzak aberasten gaituela, eta gizarteak heldutasuna erakusten duela arrazakeria eta xenofobia guztiz desagerrarazten dituen.

Nafarroako Gobernuak eta erakunde sinatzaileek Nafarroa plurala, askotarikoa eta tolerantea nahi dugu, horrelakoa izateaz harro dagoena. Nafarroa inklusibo batean sinesten dugu, pertsona guztien arteko bizikidetzaz bermatua duena, azalaren koloreari edo pertsonen jatorriari erreparatu gabe. Munduari irekita dagoen Nafarroa, alegia, non guztiek eskubide berak izanen baititugu, eta komunitatean bizitzeko proiektu batean ezinbesteko osagai izanen baikara.

Uste dugu Nafarroak alde batera utzi behar duela gorrotoaren diskurtsoa, eta etorkizunari ausardiaz begiratu behar diola, errespetuzko eta eskuzabaltasuneko balioak oinarri hartuta. Arrazakeriarik eta xenofobiarik gabeko Nafarroa horretan sinesten dugu, eta hori lortzeko lanean segituko dugu. Eta gure egiten dugu Nazio Batuek eginiko gonbidapena: Nafarroan bizi diren pertsonen eskatzen diegu batasunean lan egiteko, urteko 365 egunetan, arrazakeriaren aurka. Ez gaitezen arazoa izan, konponbidearen parte baizik.

CEA(R)
Comisión Española
de **Ayuda al Refugiado**

 **Cruz Roja**
Navarra




SOS
RACISMO ARRAZAKERIA
NAVARRA NAFARROA


redes
Red de Entidades para el Desarrollo Solidario

Gobierno  **Nafarroako**
de Navarra **Gobernua**